



46. IRAKURKETA GIDA

1. AZALA

Iritsi zaigu 46. zenbakia. Oraingo honetan, sekretuen inguruan murgilduko da aldizkaria. Sekretu onak, txarrak... kontatu beharrekoak edo norberarentzat gelditu beharrekoak? Oraingo honetan, azala azkenerako utziko dugu; hau da, aldizkaria irakurri ondoren, honako proposamen hau egingo diozu haurrari:

- Galdetu haurrari: "Zein izenburu jarriko zenioke aldizkariari?"
- Marraztu ezazue orri zuri batean, aldizkariari nolako marrazkia, irudia edo dena delakoa jarriko zenioten.
- Amaitzeko, jarri izenburu bat, eta begiratu aldizkariako azalari!

OSO EZBERDINA ATERA ZAIZUE?

2. AURKIBIDEA

Har ezazue tartetxo bat, aurkibidearen atala zertxobait arakatzeko; izan ere, bertan hainbat pista aurkituko dituzue aldizkariaren nondik norakoa antzeman eta ulertzeko. Irakurri ezazue lasai-lasai laburpena banaka, ahoz goran... Nahi duzuen bezala. Laburpena irakurri ondoren, galdera hau egin dezakezue: "Zer dira sekretuak?".

Gero, aurkibidean dugun zerrendara joko dugu, eta bertan, hauxe egitea proposatzen dugu:

- Agertzen diren zenbakiak banan-banan orri batean idaztea eta zatitxo txikietan moztu eta tolestea.
- Tolestutako zati horiek nahastu egingo ditugu, eta, aldizkariko beste atal bat irakurri behar duzuen bakoitzean, orritxo zatia aterako duzue, zoriz.

3. PUPU ETA LORE

Irakurtzen ari garena gure ingurukoekin partekatzea jarduera bikaina eta aberatsa da, eta elkar gehiago ezagutzeko balio digu. Pupu eta Loreren atalera iristean:

- Orriaren kopia bat aterako duzue.
- Ondoren, atalak edo laukitxoak moztuko dituzue.
- Jarraian, hauxe esango diozue haurrari: “Begira Pupu eta Loreren komikia nola agertu den?” (erakutsi haurrari moztutako zatiak) “Lagunduko didazu ondo jartzen?”.
- Ondoren, komikia ordenatuko duzue.
- Amaitzeko, irakurri komikia, eta, irakurri bitartean, egin geldialdi batzuk, eta haurrari galderak egiteko; adibidez: "Zuk zer egingo zenuke?".

4. PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTX

Jolas gaitezen apur bat letrekin. Galde iezaiozu haurrari ea jolasteko prest dagoen. Horrela, haurraren irrika piztuko dugu. Letrak aldatzean datza jolasa; hau da, irakurtzen ari zareten bitartean, zenbait letra beste letra batekin aldatu beharko duzue, eta entzuten ari dena aldaketa horrekin jabetu beharko da. Beraz, elkarrekin irakurri beharko duzue.

5. OSASUNA GURE ONDASUNA

Tiritatxoren aholkuak irakurri aurretik, irudian erreparatzeko proposamena egiten dizuegu. Irudia aurrean duzuelarik eta ondoan orritxo bat hartuta, eguzkitik babesteko “sekretutxoak” sortzen joango zarete; ziur gaude antzeko sekretuak izango direla, eta, hori baieztatzeko, amaitzean, irakur itzazue lasai-lasai Tiritatxoren aholkuak, eta zuek sortutakoekin alderatu.

6. NANA PARKEAN

Nanaren istorioa irakurketa korapilatsua bilaka daiteke, haurrak kontakizuna ulertu ezin badu. Hori dela eta, elkarrekin irakurtzea proposatzen dugu. Zer iruditzen zaizue irakurketa gunea jolastoki bat bada? Interesgarria litzateke irakurketa lekuak aldatzen joatea, erakutsi haurrari leku askotan irakur daitekeela.

7. TXOREN ISTORIOAK

Txoren istorio berria irakurtzeko eta istorioan murgiltzeko, mozorrotzeko proposamena egiten dizuegu. Hau da, zuek hautatu zenbat izango zareten, baina batzuk Euskal Herritik Ternuara joan zirenen moduan mozorrotuko zarete, eta beste batzuk Ternuako biztanleak bezala. Ikusiko duzue, dibertigarria izango da haurrentzat, eta ziur gaude errepikatzeko eskatuko dizuetela. Kontuan izan behar dugu irakurketa moduak eta guneak errepikakorrak izaten direla, eta, irakurzaletasuna piztu eta errutina horiek puskatzeko, irakurketa espazioak eta erak erakutsi behar dizkiegu.

8. TXOKO TXIKI KUTTUNA

Atal honetara iritsitakoan, estali egingo duzue bertso bakoitzaren gainean dagoen izenburua. Gero, idatzi izenburuak orri zuri batean, moztu eta tolestu. Ondoren, hauxe esango diozu haurrari: “Bertsoen izenburuak nahastuta iritsi dira, bakoitza bere lekuan jartzeko prest?”.

Amaitzeko, sekretuen inguruan beste bertso bat sortzeko proposamena luzatzen dizuegu.

9. LAGUN

Irakur ezazue komikia lasai-lasai, eta gero, asmakizunekin jolastuko gara. Komikian ageri diren hitz eta irudietan oinarriturik, egin itzazue asmakizun batzuk; hemen adibide bat:

- Kolore bizia eta forma borobila duen gauza baten bila gabiltza; ia komikiko zati guztietan agertzen da.
- ...

Jolas honek, modu dibertigarrian, komikiaren errepasoa egiten lagunduko du.

10. TROGLOBIOAK

Asteburuan ibilalditxo interesgarri bat egiteko prest? Oraingo honetan, Euskal Herriko animalien artean, Troglobioa azaldu zaigu, ia inork ezagutzen ez genuen animalia bitxia. Haurrari haxe esatea proposatzen dizuegu:

- “Haitzuloetako animalia nonden norakoak irakurri ondoren, sekretutxo bat kontatuko dizut, ados? Baina, horretarako, animalia honen gaindiko hainbat galdera erantzun beharko ditugu, ados?”

Sortu zeuek galdera, haurraren adina eta gaitasuna kontuan izanik. Eta haurrari kontatuko diozun sekretua, asteburuan haitzulora egingo duzuen ibilaldia izango da!, ANIMATU!

11. FILOSOFO TXIKIAK

Komikia irakurri ondoren, bertan ageri diren hainbat adierazpenen gaineko gogoeta bat egin nahi dugu oraingoan.

- Lehendabizi, komikia irakurriko dugu, pertsonaia bakoitzari ahots bat jarriz.
- Amaitzeko, honako adierazpen hauen inguruan zer pentsatzen dugun adieraziko diogu elkarri:
 - o Behartuta gaude gure sekretuak lagunei kontatzera?
 - o Bere sekretua da! Ez badu nahi, ez dio inori kontatu behar.

- O Batzuetan, sekretuak ezagutzen saiatu behar dugu.
- O ...

12. MARTINBERTSO

Martin Bertsoren komikitik, ipuin bat sortzera animatzen zarete? Irakur ezazue komikia nahi duzuen bezala, konpartituta, bakarrik... Ondoren, irudimena landuz, ipuin bat sortuko duzue; haurrari baliagarri egingo zaio irudietan erreparatzea ipuina sortzeko momentuan.

13. MARIKALANBRE

Esperimentuak interesgarriak eta erakargarriak dira guretzat zein haurrentzat. Beraz, irakurri bion artean, eta jarraian, esperimentatu zeuek ere. Gure haurrentzat, garrantzitsua izango da, gauza ezberdinak esperimentatzea; izan ere, horrela, beren interesa eta motibazioa piztuko ditugu.

14. LARGABISTA

Jarraian, detektibe lanetarako beta emango dizuegu:

- Lehenik eta behin, irakurri komikia.
- Detektibe lanak eginez, horri zuri batean protagonistaren izena jarriko duzue, inortxori ere erakutsi gabe.
- Amaitzeko, esan *bat*, *bi*, *hiru*, eta bakoitzak zer idatzi duen erakutsi beharko du.

15. ZENBATAK

Zenbaten komikian, ezinbestekoa izango da gogoeta bat egitea; horrela, haurrak komikia nola ulertu duen ezagutuko dugu.

- Beraz, komikia irakurri ondoren, haurrari galdetuko diozu ea Zenbatekin zer gertatu den.
- Ondoren, jolas zaitezte; hau da, egin ezazue zuek ere belarri katea, hainbat hitz edo esaldirekin.
- Jolas hori asko gustatzen zaie hurrei, eta, gainera, entzumena eta kontzentrazioa lantzeko balio du.

16. MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE IZAN

Komikian murgiltzeko, honako hau da proposamena:

- Haurraren momentua izango da orain!
- Haurrak erabakiko du nola disfrutatu irakurketarekin; lagundu irudimena lantzen.
- Esaiozu haurrari, zuk ere irakurketarekin gozatzea nahi duzula eta ea zer proposatzen dizun. Ziur gaude txundituta geldituko zarela, haurrak izango duen erantzunaz.

17. IRRIEN LAGUNAK

Garrantzitsua da irakurtzen ari garenean informazio garrantzitsua sailkatzen jakitea; izan ere, testua bere osotasunean ulertzen laguntzen du; beraz, gure proposamena hau da:

- Lagundu haurrari informazioa irakurtzen, eta ondoren, irakurritakotik garrantzitsua zer iruditu zaion azaltzen joango zarete, ados?
- Informazio hori beste bati azalduko diogu.
- Amaitzeko, esaiozu haurrari: "Ideia bat daukat? Zer iruditzen zaizu zuk nahi duzun jolas batean aritzea?".

